

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ALDEZLEAREN URTEKO TXOSTENA

2014ko abenduaren 15a – 2015eko abenduaren 14a

Itziar Etxebarria Bilbao

aldezleā

AURKIBIDEA

Sarrera	3
1.- 2015eko aztergaiak	3
1.1.-Bulegora jo duen pertsona kopurua eta aztergai kopurua.....	3
1.2.-Bulegora jo duten pertsonen generoa.....	5
1.3.-Bulegora jo duten pertsonen erabilitako hizkuntza.....	5
1.4.-Aztergaiak kolektiboen arabera: ikasleak, irakasle-ikertzaileak, AZP eta “Beste batzuk”	6
1.5.-Aztergaiak campusen arabera.....	8
1.6.-Aztergaiak ikastegiaren eta zerbitzuen arabera.....	8
1.7.-Aztergai motak.....	10
1.8.-Aztertutako gaiak.....	13
1.9.-Bulegoaren esku-hartzea.....	17
1.10.-Jasotako erantzuna.....	20
1.11.-Inplikaturako zerbitzuen eta arduradunen lankidetzaren.....	21
1.12.-Ondorioak eta aholkuak.....	21
2.- Aldezlearen beste eginkizun batzuk	22
2.1.-G9 taldeko defendatzaileen bilerak.....	22
2.2.- <i>Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak arautegian aurreikusitako aldatetegi buruzko Jardunaldia</i>	23
2.3.- <i>Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen Konferentziaren (CEDU) XVIII. Bilkura</i>	23
2.4.- <i>12th European Network of Ombudsmen in Higher Education (ENOHE) Annual Conference</i>	24
2.5.-CEDUren foroak.....	24
2.6.- <i>Universidad, Ética y Derechos “Rued@”</i> aldizkaria.....	25
2.7.-Bilera Arartekoarekin.....	25
3.- Txosten ekonomikoa	26
4.- Azken gogoeta	27
I. ERANSKINA: Aztergaien zerrenda	29
II. ERANSKINA: Unibertsitate diziplinari buruzko CEDUren Manifestua	38

Sarrera

UPV/EHUren Estatutuen 77. artikulua ezarri moduan, Aldezlearen jardueren urteko txostena aurkezten dugu, laugarren urtez jarraian erakundea sortu zenetik. Txostenean ikusiko dugunez, 2015a urte nahiko lasaia izan da aurreko urteekin alderatuta; bereziki, erakundea martxan jarri zen urtearekin alderatzen badugu. Bulegoan eskaera ugari jasotzen jarraitu badugu ere, behera egin du kexa kopuruak, eta, oro har, azken urtean izan ditugun arazoak ez dira hain larriak eta korapilatsuak izan. Dena dela, horrek ez du esan nahi gaur egun gure unibertsitatearen egoera idilikoa denik. Aitzitik, inguruko unibertsitate gehienak bezala, UPV/EHU ataka estuan dago botere publikoek azken garaiotan erabilitako politiken ondorioz, eta egoera horrek gonezina sortzen du unibertsitateko kideen artean.


Txosten honen amaieran, gai horri buruzko hainbat gogoeta egingo ditugu. Lehenik eta behin, ordea, bulegoak 2015ean aztertu dituen kasuen oinarrizko ezaugarriak azalduko ditugu. Ondoren, Aldezleak azken urtean izan dituen beste eginkizun batzuk hartuko ditugu hizpide. Amaitzeko, urteko txosten ekonomikoa aurkeztuko dugu.

1.- 2015eko aztergaiak


Atal honetan, 2015ean landu ditugun aztergaiak eta haien oinarrizko ezaugarriak deskribatuko ditugu. Dokumentuaren amaierako **I. ERANSKINAK** urte osoan aztertutako aztergaien zerrenda biltzen du.

1.1. Bulegora jo duen pertsona kopurua eta aztergai kopurua

2015ean, 131 pertsonak jo dute Aldezlearengana. Aurreko urteetan bezala, pertsona batzuek kasu bat baino gehiago planteatu dizkigute, eta zenbait pertsonak talde modura aurkezturiko problema batzuk ere izan ditugu. Hala, 2015ean 139 aztergai izan ditugu (Kontsultak, Kexak eta Bitartekaritza eskaerak). Beraz, 1. grafikoan ikus daitekeenez, aztergai kopuruak behera egin du 2014. urteari dagokionez, eta 2013ko kopuru bertsuan kokatu da. Aurrerago ikusiko dugunez, kasu kopuruaren jaitsiera irakasle-ikertzaileen taldean eta "Beste batzuk" kategorian (UPV/EHUtik kanpoko pertsonak) izan da, ez ordea ikasleen eta AZPko langileen kolektiboetan.




Hurrengo ataletan, aipatutako 139 aztergaiak hartuko ditugu erreferentziazat. Hala eta guztiz ere, aipatzekoa da, aztergai horiez gainera, **18 pertsonak beste 22 aztergai** aurkeztu dituztela bulegoan. Pertsona horiek ez dute kontsulta edo kexarik aurkeztu, edo bitartekaritza eskaerarik egin; aldiz, gertakizun batzuen berri eman digute, beharrezkotzat jo baitute, arrazoi pertsonalengatik edo unibertsitatearentzat garrantzitsuak izateagatik, Aldezlea jakinaren gainean egotea. 2. grafikoa ikus daitekeenez, "Gertakizunen kontakizun" kopuruak gora egin du nabarmen 2013tik aurrera, eta Aldezlearenganako konfiantza handituz doala esan nahiko luke horrek, gure ustez.



Amaitzeko, 2015ean, **2 pertsonak iradokizun bana** aurkeztu dute bulegoan, Aldezleari laguntza eskatuz, unibertsitatean hobetu beharreko gaiei buruzkoak.

1.2. Bulegora jo duten pertsonen generoa


Aldezlearengana jo duten 131 pertsonen artetik, 67 emakumeak ziren; 64, gizonak. 3. grafikoak generoari buruzko urtez urteko datuak biltzen ditu (bulegoa sortu zenetik gaurdaino), ehunekoetan adieraziak.



Ikus daitekeenez, 2012an, Aldezlearengana jo zutenen artean gizonezkoak izan ziren nagusi, argi eta garbi. Hala eta guztiz ere, azken urteetan, sexuen arteko proportzioa gero eta hurbilago dago UPV/EHUn sexuen banaketak duen egiazko proportziotik (gaur egun, gure unibertsitatean, gizonen eta emakumeen proportzioa % 47,8 eta % 52,2 da, hurrenez hurren).

1.3. Bulegora jo duten pertsonen erabilitako hizkuntza


139 aztergaietatik, 1 ingelesez planteatu da; 27, euskaraz; eta 111, gaztelaniaz. 4. grafikoan ikus daitekeenez, euskararen erabilera % 20 inguruan mantentzen da, jaitsiera txiki batekin 2014ari dagokionez.



1.4. Aztergaiak kolektiboen arabera: ikasleak, irakasle-ikertzaileak, AZP eta “Beste batzuk”

Kolektiboen arabera, 2015ean, ikasleek 67 aztergai planteatu dituzte; irakasle-ikertzaileek, 42; eta AZPko langileek, 16. Aldiz, 2014an, 68, 56 eta 14 izan ziren, hurrenez hurren. Beraz, lehenago esana daukagunez, behera egin du irakasleen kasuen kopuruak, eta proportzio bertsuan mantendu dira beste bi taldeenak. 5. grafikoa datu hauek erakusten dizkigu, aurreko hiru urteetako datuekin batera, ehunekoetan.

Kontuan izanik kolektibo hauen proportzioak gure unibertsitatean (irakasle-ikertzaileak % 10 dira, ikasleak % 86, eta AZPko langileak % 3), 2015eko ehunekoak aurreko urteetakoak baino logikoagoak dira, urte horietan irakasleek zegokiena baino pisu handiagoa zutelako, ikasleekin alderatuz gero bereziki.




Gainera, UPV/EHUtik kanpoko 14 pertsonak (“Beste batzuk” kategorია) beste horrenbeste aztergai planteatu dizkigute, gure unibertsitateko arazoei buruzkoak (ikasketetarako sarbidea, plazak, ordezkapen-poltsak...). 6. grafikoa, era honetako kasuek azken lau urteetan izan duten bilakaera ikus daiteke.



Grafikoa ikus daitekeenez, 2015ean, “Beste batzuk” kategoriako kasuen kopurua 2014. urte aurreko kopuruetara itzuli da (urte horretan, ia bikoiztu egin zen kanpoko pertsonen aztergai kopurua).

Horrenbestez, azken urte honetan, ikasleek eta AZPko langileek planteatu duten aztergai kopurua 2014ko kopuru ia berbera izan da; aldiz, behera egin dute nabarmen irakasleen eta “Beste batzuk” kategoriako pertsonen aztergaiak. Aurrerago ikusiko dugunez, bi talde hauetan behera egin duena kexa kopurua izan da, ez beste motatako kasuak.


2015ean, ikasleen 67 aztergaietatik, 52 graduiko ikasleek planteatu dituzte; 15, graduondokoek. Aldiz, 2014an, graduiko ikasleen kasuak 62 izan ziren, eta graduondokoek, 5 (7. grafikoa).



7. grafikoan ikus daitekeenez, 2012 eta 2014 artean, behera egin zuen bulegora jo zuten graduondoko ikasleen ehunekoak. Kontuan izanik urte horietan graduondoko ikasleen proportzioak jaitsierarik izan ez zuela, aurreko txostenean, beherakada hori interpretatzean, adierazi genuen maila horretako ikasleei eskainitako zerbitzuaren hobekuntzaren ondorio izan zitekeela. Nolanahi ere, azken urtean, berriro igo da graduondoko kasuen proportzioa, eta zaila da horren interpretazioa egitea. Igoera zori hutsaren emaitza izan daiteke, edo, neurri batean behintzat, tesiei buruzko arauetan egin diren azken aldaketen ondorio ere izan liteke (programa zaharretako tesiak aurkezteko epeak, nazioarteko tesien eskakizunak...).

1.5. Aztergaiak campusen arabera

Jaso ditugun 139 aztergaietatik, 63 Bizkaiko Campusetik iritsi dira; 40, Gipuzkoatik; eta 22, Arabatik (dagoeneko esan dugunez, beste 14 aztergai iritsi zaizkigu UPV/EHUtik kanpoko pertsonengandik). Ikus 8. grafikoa.



8. grafikoan ikus daitekeenez, 2012an, Bizkaiko Campusak proportzioan zegokiona baino pisu handiagoa zuen aztergai kopuruan. Azken urteetan, campusen arteko proportzioa egiazko balioetara hurbilduz joan da (Bizkaia % 56, Gipuzkoa % 26 eta Araba % 18), 2015ean Gipuzkoako Campusak espero zitekeena baino presentzia handiagoa izan badu ere. Azken datu hori zori hutsaren emaitza izan liteke (2014an Arabak proportzioan zegokiona baino kasu kopuru handiagoa izan zuen modu berean), edo Gipuzkoan Aldezlea hobeto ezagutzearen seinale izan daiteke.

1.6. Aztergaiak ikastegien eta zerbitzuen arabera

1. taulan, Aldezlearen bulegora laguntza eske etorri diren pertsonen, ikastegien eta zerbitzuen zerrenda jaso dugu.

1. taula. Aldezlearengana jo duten pertsonen ikastegiak eta zerbitzuak

Ikastegiak eta zerbitzuak	2012	2013	2014	2015
Arabako Biblioteka	-	-	-	1
Arkitektura GET	4	6	4	2
Arte Ederren F.	1	5	1	4
Bilboko Enpresa Ikasketen UE	3	3	1	-
Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE	3	7	2	2
Bilboko Ingeniaritza GET	7	4	4	5
Bilboko Irakasleen UE	5	3	4	4
Bilboko Merkataritza Ganberako UE	-	-	-	2
Campuseko Gerenteordetza	-	2	-	-
Donostiako Enpresa Ikasketen UE	1	1	1	-
Donostiako Erizaintzako UE	-	-	1	1
Donostiako Irakasleen UE	1	4	1	5
Donostiako UE Politeknikoa	1	2	1	1
Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE	1	2	1	-
Ekonomia eta Enpresa Zientzien F.	1	15	3	3
Errektoregoa	1	-	-	-
Esperientzia Gelak	-	-	1	-
Farmazia F.	2	4	4	1
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien F.	-	3	9	6
Gasteizko Enpresa Ikasketen UE	-	5	-	-
Gasteizko Erizaintzako UE	-	1	1	-
Gasteizko Gizarte Langintzako UE	-	-	1	-
Gasteizko Ingeniaritzako UE	2	4	6	6
Gasteizko Irakasleen UE	-	-	2	2
Gerentzia	-	-	1	-
Gipuzkoako Biblioteka	-	1	-	4
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.	6	8	17	9
Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektoreordetza	-	1	-	-
Idazkaritza Nagusia	-	1	2	1
Ikasleen Kontseilua	2	3	1	1
Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetza	-	-	-	1
IKTen Gerenteordetza	3	-	-	-
IMHko Ingeniaritza Dualaren UE	-	-	-	4
Informatika F.	-	2	4	2
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien F.	3	1	2	4
Kalitate eta Ikasketa Berrikuntzaren arloko Errektoreordetza	-	-	-	1
Kimika F.	-	-	1	-
Korta Eraikina	-	-	-	1
Lan Harremanen UE	1	4	-	-
Letren F.	2	6	16	7
Master eta Doktorego Eskola	-	1	1	5
Meatzteen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko UE	4	1	1	2
Medikuntza eta Odontologia F.	13	6	16	11
Nautika eta Itsasontzi-makineria GET	1	1	6	3
Pertsonaleko Gerenteordetza	-	-	1	2
Psikologia F.	5	4	1	6
Zientzia eta Teknologia F.	3	6	11	7
Zuzenbide F.	6	7	9	9
Beste batzuk	15	15	26	14
Anonimoa	-	1	-	-
Guztira	97	140*	164	139

* Hiru aztergai ikastegi edo zerbitzu bat baino gehiagoko pertsonak planteatu zituzten. Horregatik, zutabe honen guztizkoa 140 da, 137 izan ordez .

Komeni da zuhur jokatzeari datu hauetatik ondorioak ateratzean. Zerrendatutako ikastegiak eta zerbitzuak oso desberdinak izateaz gainera (ez soilik tamainan), ikastegi edo zerbitzu bateko datuak asko aldatu daitezke urte batetik bestera, faktore askotarikoengatik, zori hutsa tartean.

1.7. Aztergai motak

Aztergai motei dagokienez, 2015ean, 84 kontsulta, 50 kexa eta 5 bitartekaritza eskaera jaso ditugu. 2. taulak datu hauek konparatzen ditu aurreko urteei dagokienez.


2. taula. Aztergai motak: maiztasunak

	2012	2013	2014	2015
Kontsultak	13	66	83	84
Kexak	72	65	74	50
Bitartekaritza	5	5	6	5
Jazarpena	7	1	1	0
Guztira	97	137	164	139

Ikus daitekeenez, 2015eko kontsulta kopurua 2014koaren parekoa izan da –aurreko hiru urteetan igoera argia izan ondoren–. Aldiz, kexa kopuruak behera egin du nabarmen, nahiz eta, aurrerago ikusiko dugunez, azkenean baietsi den kexa kopurua aurreko urtekoaren antzekoa izan den. Bitartekaritza eskaeren kopurua aurreko urteetan izandakoen antzekoa da.

Jazarpen kexei dagokienez, kontuan izan behar da *lan arloan izandako jazarpen-salaketak konpontzeari buruzko akordio* berriaren arabera (2014ko abuztuaren 27ko EHAA), era honetako kexak aztertzea eta ebatzea jada ez dagoela Aldezlearen esku, Arbitraje Batzorde espezifiko baten esku baizik, eta horixe litzateke, hain justu, gure bulegoak 2015ean aztertu dituen aztergaien artean horrelako kasurik ez egoteko arrazoia. Dena dela, horrek ez du esan nahi aztergai ditugun zenbait arazotan jazarpen jokabideak agertzen ez direnik. Hitzarmenak berak ere aurreikusten du hori: “Nolanahi ere, ahal den kasuetan eta aldeek horren aldeko jarrera erakusten badute, erraztasunak emango dira bi aldeentzat konponbide egokia eman dadin modu estraofizialean edo Aldezleren bitartekaritzaren bidez (haren Funtzionamendu Arautegiaren 18. artikuluan jasotako prozeduraren bidez)”. Izan ere, 2015ean bertan era honetako bi kexa eta kontsulta bat izan ditugu. Kasu hauek “Kexak” eta “Kontsultak” atalen barnean zenbatzen ditugu, hurrenez hurren, eta aztergaiak gai espezifikoaren arabera sailkatzean –aurrerago ikusiko dugunez–, “Jazarpen-portaerak” epigrafearen barnean agertzen dira.


9. grafikoak aztergai motak biltzen ditu, lau urteetakoak, ehunekoetan adieraziak. Ikus daitekeenez, kexen eta kontsulten arteko proportzioa alderantzikatuz joan da urteek aurrera egin ahala: 2012an, kontsulten kopurua kexen kopurua baino askoz txikiagoa zen, eta orain kexak kontsultak baino gutxiago dira.





10., 11., 12. eta 13. grafikoen, aztergai mota bakoitzaren bilakaera ikus daiteke kolektiboen arabera.

10. grafikoa ikus daitekeenez, 2012 eta 2014 artean, kontsultek gora egin zuten nabarmen talde guztietan; bereziki, ikasleen taldean. 2015ean, kontsulten kopurua maila berean mantentzen da gutxi gorabehera talde guztietan, eta irakasleen eta UPV/EHUtik kanpoko pertsonen kexa kopuruan izan den beherakada da gauzarik aipagarriena (ikus 11. grafikoa).

Bestetik, bitartekaritza eskaerei erreparatzen badiegu (12. grafikoa), aurreko urteetan ia eskaera denak irakasle-ikertzaileenak baziren ere (talde horretan gatazkek zuten garrantziaren adierazle gisa interpretatzen genuena), 2015ean ez dugu eskaera bakar bat ere jaso kolektibo horretatik.





Oharra: lerro berdea –AZPko langileena– bat dator lerro horiarekin, eta honek estaltzen du.



1.8. Aztertutako gaiak

Kolektiboek zer arazo mota planteatzen dizkiguten zehatz jakiteko (mota guztietako arazoak, ez bakarrik kexak), lau taula osatu ditugu (3., 4., 5. eta 6. taulak), eta talde bakoitzak planteatutako gaiak bildu ditugu horietako bakoitzean. Kolore urdinez, 2013an, 2014an eta 2015ean agertzen diren gaiak nabarmendu ditugu (2012an, lehen urtea izanik kasuistika txikia izan genuenez, aztergaiak ez genituen kategoriatan sailkatu).

Taulak aztertzen hasi aurretik, komeni da kontu bat argitzea. Taula guztietan parentesien artean agertzen diren kasuetan, Aldezlearen eginkizun nagusia izan da erantzun bat lortzea dagokion epean erantzunik izan ez duten idatzi edo errekurtsioentzat¹.

3. taulan ikus daitekeenez, ikasleen taldean, hauexek izan dira 2015eko gai nagusiak: "Ikasleen ebaluazioa", "Irakaskuntzaren kudeaketa", "Ebaluazio berezia", "Doktorego tesiak" eta "Bekak". Lehen bi kategoriak urtero nabarmentzen dira. Aurreko urteekin alderatuta, 2015ean bereziki nabarmentzekoa da doktorego tesien gaia, jadanik esan dugunez arlo horretan egin diren azken aldaketan eraginez, beharbada.

Ikus daitekeenez, "Baliozkotzeak eta kredituak aitortzea" eta "Arautegia aplikatzeko modua" gaiak lotutako arazoak –zerikusi handia dutenak Bolonia eredura eginiko urratsarekin– behera egin dute nabarmen azken bi urteetan, eta ia desagertu egin direla esan daiteke. Aldiz, azken bi urteetan, "Gradu/Master Amaierako Lanekin" zerikusia duten aztergaiak agertu dira, kopuru txikian bada ere.

¹ 2013an, "Erantzunik eza" kategoriatan bat gehiago zen, eta, horrela, oinarritzko arazoei buruzko informazioa galtzen genuen. Taula haueetan, konparazioa egiteko, birsailkatu egin ditugu 2013an kategoriatan zeuden 3 aztergaiak gainerako kategorietan.

3. taula. Ikasleen aztergaiak

Gaia	2013	2014	2015
Arautegia aplikatzeko modua	6	-	-
Arautegia ez betetzea	-	1	-
Arazo pertsonalak	1	-	-
Atzerritartasuna	1	-	-
Baliozkotzeak eta kredituak aitortzea	6 (1)	1	1
Bekak	3(1)	3	4 (1)
Berdintasun arazoak	-	1	-
Datuen babesa	-	-	1
Diziplina arazoak	-	1	-
Doktorego tesia	-	1	5
Ebaluazio berezia	4	3	5
Euskarazko irakaskuntza	-	2	-
Gatazka agintariekin	-	2	-
Genero indarkeria	-	1	-
Gradu/Master amaierako lana	-	4	2
Gradura egokitzea	2	3	-
Greba	-	2	-
Ikasketetarako sarbidea	1(1)	-	1
Ikaskideen portaera	1	1	-
Ikasleen ebaluazioa	10	11	16
Ikasleen ordezkaritza	2	3	1
Ikastegiko zuzendaritzaren portaera	-	1	-
Intimitaterako eskubidea	1	-	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	3	10	15
Irakasleen portaera	4	4	2
Iraunkortasunari buruzko arautegia	1	-	-
Jendearentzako arreta	3	-	2
Kanpoko praktikak	2	3	2
Matrikula	4	5	3
Matrikula balio gabetzea	2	-	1
Mugikortasuna	-	2	1
Presoentzako arreta	-	-	1
Prezio publikoak	2	1	2
Tituluak eta ziurtagiriak	1	1 (1)	2
Zerbitzuen portaera	2	-	-
Bestelakoak	-	1	-
Guztira	62 (3)	68 (1)	67 (1)

Irakasle-ikertzaileen kasuan (4. taula), hauexek izan dira 2015eko gai nagusiak: “Plazak/Ordezkapen-poltsak”, “Gatazka lankideekin”, “Irakaslan-banaketa” eta “Osagarri gehigarriak”, guztiak urtero errepikatzen diren gaiak. Dena dela, behera egin du nabarmen “Gatazka lankideekin” kategoriaren maiztasunak, aurreko urteekin konparatuta. Bestetik, azken bi urteotan errepikatu egin da “Lan-baldintzak” aztergaia.

4. taula. Irakasle-ikertzaileen aztergaiak

Gaia	2013	2014	2015
Aparteko ordainsaria	1	-	-
Arautegia aplikatzeko modua	4	2	-
Azpiegiturak	1	-	-
Barne kontrola	-	-	1
Bateragarritasunak	1	-	-
Bekak	-	-	1 (1)
Berdintasun arazoak	-	1	-
Datuen babesa	-	-	1
Docentiaz	-	-	1
Doktorego tesia	-	3 (1)	1
Ebaluazio epaimahaien aukeraketa	-	1	-
Ebaluazioa kanpoko agentzien bidez	-	-	1
Erosketak	-	-	1
Errektoregoaren portaera	-	1	1
Etika akademikoa (ikasleak)	-	1	1
Etika zientifikoa (irakasleak)	-	1 (1)	-
Gatazka agintariekin	-	1	-
Gatazka lankideekin	17	13	5
GAURen arazoak	1	-	-
Ikasleen ebaluazioa	2 (1)	2 (1)	-
Ikasleen portaera	3	2	2
Ikastegiko zuzendaritzaren portaera	-	1	-
Ikerketa-proiektuak	1	-	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	2	-
Irakaslan-banaketa	3	6	4 (1)
Irakasleen Hobekuntzarako Plana	-	2	-
Irakasleen portaera	3	-	-
Jardun Akademikoaren Plana (JAP)	2	-	-
Jazarpen-portaerak	2 (1)	2	2
Lan-baldintzak	-	3	3
Ordezkaritza organoaren portaera	-	-	1
Osagarri gehigarriak	2	1	3
PIF ordainsariak	1	2	-
Plazak/Ordezkapen-poltsak	6 (1)	4 (3)	7 (1)
Presoentzako arreta	-	-	1
Saileko zuzendariaren portaera	-	2	2
Bestelakoak	-	3	3
Guztira	50 (3)	56 (6)	42 (3)

AZPko langileei dagokienez (5. taula), 2015ean, lan baldintzekin zerikusia duten gaiak izan dira nagusi. Gainerakoan, ez dago urte batean bereziki nabarmendu den gairik, eta aztergaiak asko aldatu dira urte batetik bestera. Nolanahi ere, badago hiru urteetan errepikatu den gai bat: “Plazak/Lekualdatze-lehiaketa”.

Azkenik, “Beste batzuk” kategorian (6. taula), aipatzekoak dira bi aztergai: “Ikasketetarako sarbidea” eta “Plazak/Ordezkapen-poltsak”. Bi-biak hiru urteetan errepikatzen dira, nahiz eta maiztasun txikiagoz azken urtean.

5. taula. AZPko langileen aztergaiak

Gaia	2013	2014	2015
Arautegia aplikatzeko modua	-	1	-
Arautegia ez betetzea	1	-	1
Azpiegiturak	-	1	-
Boto elektronikoa	1	-	-
Errektoregoaren portaera	2 (1)	-	-
Erretiroa	1	-	1 (1)
Gatazka agintariekin	-	-	1
Gatazka lankideekin	1	-	-
Ikasleen portaera	-	-	1
Informazioa eskuratzeko eskubidea	-	2	2 (2)
Irakasle-ikertzaileekiko diskriminazioa	1	-	-
Jazarpen-portaerak	-	1	-
Lan-baldintzak	-	2 (1)	5 (1)
Merezimenduen ebaluazioa	-	-	1 (1)
Mugikortasuna	1	-	-
Nagusiaren portaera	-	2	1
Plazak/Lekualdatze-lehiaketa	1	3 (1)	2
Saileko zuzendariaren portaera	-	1	-
Bestelakoak	-	1	1
Guztira	9 (1)	14 (2)	16 (5)

6. taula. "Beste batzuk" kategoriaren aztergaiak

Gaia	2013	2014	2015
Atzerritartasuna	1	-	-
Bekak	1	-	1
Beste kolektibo batzuekiko diskriminazioa	-	-	1
Datuak babestea	-	-	1
Erretiroa	1	-	-
Gatazka agintariekin	1 (1)	-	-
GAURen arazoak	-	1	-
Ikasketetarako sarbidea	3	7	4
Ikasleen ebaluazioa	-	1	-
Ikasleen portaera	-	1	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	1	-
Irtenbide profesionalak	-	-	1 (1)
Jazarpen-portaerak	-	2	1 (1)
Kontratazioa	1	-	-
Lan-baldintzak	-	1	-
Matrikula	-	2	-
Plazak/Ordezkapen-poltsak	6	4 (1)	2
Presoentzako arreta	-	-	1
Prezio publikoak	-	1	-
Tituluak eta ziurtagiriak	1	-	1
Unibertsitatara sartzeko probak	-	3	1
Bestelakoak	-	2	-
Guztira	15 (1)	26 (1)	14 (2)

1.9. Bulegoaren esku-hartzea

Bulegoan planteatu diren 139 aztergaien artetik, kontsulta guztiek (84, jada esan dugunez) erantzun egokia izan dute, eta 5 bitartekaritza eskaerei ere erantzun zaie.

50 kexen artetik, 32 onartu dira, eta 18 atzera bota, hainbat arrazoiengatik: 14, prozedura arrunta ez amaitzeagatik (kasu ez-larriak); 1, funtsik ez izateagatik; 1, urtebete baino gehiago igarotzeagatik kexa eragin duen gertakizunetik; 1, kexa jada konponduta egoteagatik; eta 1, gaiaz arduratzeko eskumenik ez izateagatik. Onartutako 32 kexetatik, 20 baietsi dira, eta 11 ezetsi, azterketa sakonago baten ondoren, funtsik gabekoak zirelakoan; gainera, kexa bat artxibatu egin da, pertsonak atzera egiteagatik. Beraz, 2015ean 2014an baino kexa dezente gutxiago jaso badira ere, azkenean baietsi direnen kopurua berdintsu izan da: 20. Ikus 7. taulan lau urteko datuak.

7. taula. 2012, 2013, 2014 eta 2015ean jasotako, onartutako eta baietsitako kexak

	Jasoak	Onartuak (jasotakoan %)	Baietsiak (onartutakoan %)
2012	72	49 (% 68,1)	34 (% 69,4)
2013	65	37 (% 56,9)	27 (% 73,0)
2014	74	37 (% 50,0)	21 (% 56,8)
2015	50	32 (% 64,0)	20 (% 62,5)

Taulan ikus daitekeenez, urtero atzera botatzen da kexa kopuru handi bat (herenaren eta erdien artean), eta prozedura arrunta amaitu ez izana izan ohi da arrazoi nagusia. Kasu batzuetan, ez dira hasi ere egiten izapide ohikoenak eta errazenak, eta izapideak hasten diren beste kasu batzuetan, kexa aurkeztu duen pertsonak uste du Aldezleak bizkortu egin lezakeela bere kasua. Hala eta guztiz ere, lehenago ere esanda daukagunez, beste zerbitzu eta organoen lanari zor zaion errespetuagatik eta Aldezlearen beraren arautegiari jarraiki, salbuespenezko kasuetan soilik esku hartzen du gure bulegoak (presazko gai bat denean, adibidez) ohiko prozedurak eta bideak amaitu aurretik. Nolanahi ere, askotan, izapideak oso geldiak izan ohi dira kexa edo errekurtsioa aurkezten duen pertsonarentzat, baita administrazioak epeak betetzen dituen ere. Beraz, komenigarria litzateke izapideak arintzea.

8. taulak baietsi diren kexen gaiak biltzen ditu. Ez dago 2012ko daturik, jada esan dugunez, lehen urtean ez zirelako aztergaiak gaien arabera sailkatu.

8. taula. Baietsitako kexen gaiak

	2013	2014	2015
Arautegia aplikatzeko modua	2	-	-
Arautegia ez betetzea	-	1	-
Baliozkotzeak eta kredituak aitortzea	2 (1)	-	-
Bekak	1 (1)	-	1(1)
Doktorego tesia	-	1	-
Gradu/Master amaierako lana	-	-	1
Ikasleen ebaluazioa	2	-	1
Intimitaterako eskubidea	1	-	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	1	-
Jendearentzako arreta	2	-	-
Kanpoko praktikak	-	1	-
Mugikortasuna	-	-	1
Prezio publikoak	1	-	1
Tituluak eta ziurtagiriak	-	1 (1)	-
Ikasleak guztira	11 (2)	5 (1)	5(1)
Arautegia aplikatzeko modua	1	1	-
Bekak	-	-	1 (1)
Erosketak	-	-	1
Etika zientifikoa (irakasleak)	-	1 (1)	-
Gatazka lankideekin	3	-	-
Ikasleen ebaluazioa	1 (1)	-	-
Ikastegiko zuzendaritzaren portaera	-	1	-
Irakaslan banaketa	-	1	1 (1)
Irakasleen Hobekuntzarako Plana	-	1	-
Jazarpen-portaerak	1	-	-
Lan-baldintzak	-	-	1
Osagarri gehigarriak	2	-	-
PIF ordainsariak	-	1	-
Plazak/Ordezkapen-poltsak	2 (1)	3 (1)	2 (1)
Saileko zuzendariaren portaera	-	1	-
Irakasle-ikertzaileak guztira	10 (2)	10 (2)	6 (3)
Arautegia ez betetzea	1	-	-
Errektoregoaren portaera	1 (1)	-	-
Erretiroak	-	-	1 (1)
Informazioa eskuratzeko eskubidea	-	1	2 (2)
Lan-baldintzak	-	-	2 (1)
Merezimenduen ebaluazioa	-	-	1 (1)
Mugikortasuna	1	-	-
Nagusiaren portaera	-	1	-
Plazak/Lekualdatze-lehiaketa	-	1 (1)	-
AZPko langileak guztira	3 (1)	3 (1)	6 (5)
Ikasketetarako sarbidea	2	2	1
Irtenbide profesionalak	-	-	1 (1)
Jazarpen-portaerak	-	-	1 (1)
Kontratazioa	1	-	-
Plazak/Ordezkapen-poltsak	-	1 (1)	-
Beste batzuk guztira	3	3 (1)	3 (2)
GUZTIRA	27 (5)	21 (5)	20 (11)

8. taulan ikus daitekeenez, baietsitako kexen gaiak izugarri aldatzen dira kolektibo guztietan, nahiz eta badiren urtez urte errepikatzen diren bi: "Plazak/Ordezkapen-poltsak" irakasle-ikertzaileen multzoan, eta "Ikasketetarako sarbidea", "Beste batzuk" kategorian. Eta, batez ere, bada urtero eta talde guztietan agertzen den gai bat; bereziki, irakasle-ikertzaileen eta AZPko langileen taldeetan: *erantzuna epean ez jasotzea*. Taulak erakusten duenez, 2015ean baietsitako 20 kexetatik 11tan, Aldezlearen helburua izan da erantzun bat eskatzea kexarentzat (epearen barnean erantzunik izan ez duena) haren edukiari lotutako gomendio zehatz bat egitea baino gehiago. Gure iritziz, gai hau funtsezkoa da edozein erakunderen kalitate demokratikoa neurtzeko, eta urtero ari gara arreta jartzen horren gainean; baina, dirudienez, oraindik ez zaio merezi duen garrantzia aitortzen. Horregatik, berriro helduko diogu gai honi azalpen honen amaieran.

9. taulan, baietsitako kexen jomuga diren organoak eta kolektiboak ikus daitezke.

9. taula. Baietsitako kexen jomuga diren kolektiboak eta organoak

Kolektiboak eta organoak	2012	2013	2014	2015
Arkitektura GETko Zuzendaritza	-	1	-	-
Bilboko Ingeniaritza GETeko Idazkaritza	-	1	-	-
Bilboko Ingeniaritza GETko Zuzendaritza	1	-	-	-
Bilboko Irakasleen UEko Zuzendaritza	-	-	-	1
DBHko Irakasleen Prestakuntzako Masterraren Zuzendaritza	1	-	-	-
Erosketen atala	-	-	-	1
Errektoregoa	4	3	1	1
Euskara eta Eleaniztasunaren arloko Errektoreordetza	1	-	-	-
Farmazia F. Dekanotza	-	1	-	-
Gerentzia	8	1	-	-
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F. Dekanotza	-	1	-	-
Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektoreordetza	6	3	1	-
Graduondokoen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetza	-	-	-	1
Idazkaritza Nagusia	1	1	1	3
Ikasleak	1	1	-	-
Ikerketaren arloko Errektoreordetza	2	1	1	2
Ikusizunaren Arteak eta Zientziak Masterraren Zuzendaritza	-	-	-	1
Irakasle-ikertzaileak	-	5	1	-
Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza	6	3	5	3
Itsas Ingeniaritzako Masterraren Zuzendaritza	-	-	-	1
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien F. Dekanotza	-	-	-	1
Kanpoko Praktiken Zuzendaritza	-	-	1	-
Master eta Doktorego Eskola	-	1	1	-
Medikuntza eta Odontologia F. Dekanotza	-	1	1	-
Pertsonaleko Gerenteordetza	-	1	1	3
Psikologia F. Dekanotza	1	-	-	-
Psikologia Fakultateko Idazkaritza	-	1	-	-
Saileko zuzendariak	2	-	4	-
Sarbidea	-	-	2	1
Zerbitziburua	-	-	1	-
Zientzia eta Teknologia F. Idazkaritza	-	1	-	-
Zuzenbide F. Dekanotza	-	-	-	1
Guztira	34	27	21	20

Hasieran aipatu ditugun bi iradokizunei dagokienez, batak planteatzen zuen martxan jartzeko campus bakoitzean Berdintasunerako eta Aniztasun Sexualerako Zerbitzuak. Iradokizun hori Berdintasunerako zuzendariari helarazi genion, uste genuelako pertsona egokiena zela proposamenaren zentzua eta bideragarritasuna aztertzeko. Zuzendaria, iradokizunaren egileari puntualki erantzun zion, Zuzendaritzaren funtzionamendua deskribatuz eta hiru campusei arreta eskaintzeko egokia dela azalduz; gainera, gehitu zuen, etorkizunean giza baliabide gehiago izanez gero, UPV/EHUko gobernu agintariek proposamena kontuan hartuko luketelakoan zegoela.

Bigarren iradokizunak 1954ko abenduaren 8ko Dekretuaren aplikazioa kritikatzeko, gaur egun oraindik ere formalki gutxienez aplikatzen dena (diziplina akademikoko erregelamendua onartzen duen arau frankista), eta tresna juridiko berri baten beharra planteatzen zuen, unibertsitatean zigortu beharreko kasuetarako. Iradokizunaren erantzunean, bat etorri ginen tresna juridiko berri baten komenigarritasunarekin, eta gure konpromisoa adierazi genuen gai honi buruzko gogoeta zabaltzeko, Aldezleak tresna horren elaborazioan nola lagundu dezakeen aztertzeko. Eta horixe egin genuen. Txosten honen 2.3 atalean adierazten den moduan, azken *Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen Bilkuran*, aztertutako gaietako bat diziplina erregimena izan zen, bai ikasleena bai unibertsitateko gainerako kideena. Gaiari buruz gogoeta egin eta eztabaidatu ondoren, defendatzaileok Manifestu bat idatzi genuen (ikus **II. ERANSKINA**), proposamen hau legebiltzarreko taldeei helarazteko.

1.10. Jasotako erantzuna

Une honetan, 2015eko espediente guztiak itxita daude. Bulegora iritsi diren kexak bideratze lanetan pertsonak eta organoek emandako erantzunari dagokionez, oro har oso ona izan dela esan genezake: 20 kexetatik 18tan, eta neurri batean ere beste 2tan, pertsonak edo organoek egoki eta zentzuz hartu dituzte bulegoak egin dizkien planteamenduak eta aholkuak. 2015ean ez dugu txartzat har daitekeen erantzunik jaso. (Ikus 10. taula).

10. taula. Kexari erantzun behar izan dioten pertsona edo organoen erantzuna

Erantzuna	2013	2014	2015
Ona	22	15	18
Ona, neurri batean	2	3	2
Txarra	3	3	0
Guztira	27	21	20

Nolanahi dela, datu horietatik harago, badugu pozik egoteko arrazoirik ere. Iruditzen zaigu gure lana baliagarria dela ezinikusia eta gatazka baretzeko, eta arazoak, larriagotu aurretik, bideratzeko, batzuetan erabat konpondu ezin baditugu ere. Ez alferrik, erantzun argi eta arrazoituak lortzen ari gara aintzat hartzen ez ziren arazoentzat; pertsonak entzuten diegu, arazo jakin baten aurrean bakarrik eta ezgai sentitzen direnean; bitartekari-lana egiten dugu, aldean arteko komunikazioa lagunduz... Arbitraje Batzordeko buruak jakinarazi digunez, azken urte honetan ez dute jazarpen kexa bakar bat ere jaso, eta apaltasunez uste dugu gure lanak, beste batzuen lanarekin batera, baduela zerikusirik horretan. Bestetik, 2015ean, aldaketa interesgarriak ikusi ditugu agintari batzuek aurreko urteetatik zetozen arazoei emandako erantzunean –adibidez, informazioa eskuratzeko arazoak–, eta gero eta gutxiago dira bulegora

jarrera auzilariarekin hurbiltzen direnak. Hemen ere sumatzen hasi gara azken urteetako lanaren emaitza.

1.11. Inplikaturako zerbitzuen eta arduradunen lankidetzak

Zerbitzu eta pertsona gehienek agudo eta prestasunez lagundu digute beti, kexa edo kontsulta bati egoki erantzuteko haiengana jo dugunean. Hala eta guztiz ere, aurreko urteetan, behin baino gehiagotan jo behar izan dugu hainbat organo eta zerbitzuren gaitasuna, gure alegazio eskaerentzako erantzun eske –baita gure amaierako gomendioentzako erantzun eske ere–. Arazo hau desagertu ez bada ere, konpontzeko bidean dago, eta pozik esan dezakegu ia pertsona guztiak laguntzen saiatzen direla, agudo eta ahal duten modurik onenean.

Bihotziekin hemendik gure esker zintzoena bere garaian Klustroak eman zigun eginkizuna betetzen lagundu diguten pertsona guztiei: ikastegi eta sailtako idazkaritzetako langileei, ikastegietako dekanoei eta zuzendariari, sailtako zuzendariari, zerbitzuetako arduradunari, Errektorego taldeko kideei, ikasleei...

1.12. Ondorioak eta aholkuak

Erakundea martxan jarri zen urtearekin alderatuta (2012), 2013an asko aldatu ziren bulegora iritsitako arazo motak. Alde batetik, nabarmen handitu zen aztergai kopurua, nahiz eta ez ziren horren kasu larri eta konplexuak izan; bestetik, bereziki areagotu ziren ikasleen eskaerak, kontsulten kopurua kexena baino handiagoa izan zen, eta gehiago izan ziren emakumeen eskaerak, baita Arabako eta Gipuzkoako Campusetatik jasotakoak ere... Aurreko ataletan ikusi dugunez, 2013an sumatzen hasi ginen erabiltzaileen eta gaien profil berria finkatuz joan da azken urteetan. Horrekin batera, datu itxaropentsuak agertzen hasi dira: azken urtean, behera egin du nabarmen irakasleen eta unibertsitateko kanpoko pertsonen kexen kopurua, eta, gainera –aipatu berri dugun moduan–, garbi egin du behera pertsona auzilarien kopurua eta urrats handiak eman dira agintari batzuen erantzunean. Hala eta guztiz ere, bada bere horretan ia dirauen arazo bat: agintarien eta zerbitzuen erantzunik eza unibertsitateko kideek aurkeztutako errekurtsio eta idatziei; bereziki, AZPko langileen eta irakasle-ikertzaileen errekurtsio eta idatziei.

Agintari eta zerbitzu askok bizkor eta behar bezala erantzuten badiete ere unibertsitateko kideek aurkeztu dituzten errekurtsio eta eskabideei, bada gure artean oraindik beste modu batean jokatzeko duenik: hau da, era egokian, arrazoituan eta arrazoizko epean erantzutea aukera bat baino ez dela pentsatzen duenik, kasu batzuetan saihestu daitekeena. Beraz, komeni da argi esatea: **erantzutea –eta zorrotasunez erantzutea– ez da aukera bat, betebeharra baizik.**

Jakina denez, errekurtsioen erantzuna azaroaren 26ko 30/1992 Legeak arautzen du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak². Lege horrek dagokion erabakia ematera behartzen du, horretarako ezarritako epean. Dena dela, horrez gainera, “Eskaera egiteko eskubidea” dago –beharbada ezezagunagoa dena–, kexa bat aurkezteko eskubidea, informazio edo argibide bat eskatzekoa, iradokizun bat egitekoa...

² 2015eko urriaren 2an, EBOk argitaratu zen *urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa*, argitaratu eta urtebetera sartuko dena indarrean. Hala eta guztiz ere, lege horrek gaur egungoaren antzera arautzen ditu erantzuteko betebeharra, epeak, erantzukizunak eta administrazio isiltasunaren ondorioak.

administrazio prozedura espezifikorik ez duten gaiei buruz. Eskaera egiteko eskubidea oinarritzko eskubide bat da, Konstituzioan jaso, eta eskubide hori arautzen duen legeak, azaroaren 12ko 4/2001 Lege Organikoak, erantzuteko betebeharra ere jasotzen du.

Aldezlearen bulegoaren web orrian, F. Manuel Montalbán Malagako Unibertsitateko Defendatzailearekin elkarlanean landutako testu bat irakur daiteke, gai hau zabalago jorratzen duena:

<http://www.ehu.es/documents/2400406/0/Derecho+de+petici%C3%B3n++.pdf>

Ezinbestekoa da unibertsitateko kide guztiok eskubide honen garrantziaz ohartzea, erantzuteko dugun erantzukizunaz, agudo eta arretaz erantzun behar dugulako, egoki eta argudioak erabilia, unibertsitateko gure zereginetan kide batek errekurtsio, kexa edo proposamen bat igortzen digunean, edo informazio bat eskatzen digunean.

Erantzutera behartuta gaude. Nolanahi ere, hortik harago, ***batzuetan komeni da aurrea hartu eta hobeto komunikatzea***. Urte hauetan guztietan, baita azken urte honetan ere, hainbat lagunen saminduraren lekuko izan gara, behin baino gehiagotan, beren egoeran eragin zuzen eta handia duten erabakiei buruzko inongo informaziorik jaso ez dutelako erabakiok hartuak izan arte. Beste kasu batzuetan, aldiz, agintaria urrats egokiak egiten ari zen, arazo jakin bat konpontzeko, baina ez zien horren berri ematen interesdunei, ezta hauek gaiak galdetzen zutenean ere. Egia bada ere batzuetan ezinbestekoa dela zuhur jokatzeko, beste batzuetan ikusten duguna hauxe da: hots, unibertsitate administrazioak erantzukizun senik gabe jokatzeko duela unibertsitateko kideekin –destainaz ere bai zenbaitetan–, eta horrek gatazkak eta erakundearenganako axolagabekeria areagotu besterik ez du egiten.

Hortaz, gure aholkua, unibertsitateko kide guztientzat –oro har– eta edozein zerbitzu edo organotako arduradunenentzat –bereziki–, argia da: ***Agudo eta argudioz erantzutea, eta, oro har, komunikazioa hobetzea***.

Gainera, kexa edo errekurtsio egileentzat luzeegiak izan ohi diren erantzun epeei buruz aipatutakoari lotuta, beste aholku zehatz bat eman nahi genuke, gure unibertsitateko Gobernu Taldearentzat kasu honetan: ***Neurriak har ditzala izapideak bizkortu eta erantzun epeak laburtzeko, bai errekurtsioetan bai edozein eskabidetan***.

2.- Aldezlearen beste eginkizun batzuk

Aurreko urteetan bezala, 2015ean, Aldezlearen lehentasuna izan da ahal bezain ondo erantzutea bulegora iritsi diren kexei, kontsultei eta bitartekaritza eskaerei. Hala eta guztiz ere, beste eginkizun batzuk ere izan ditugu, ondoko lerroetan labur azalduko ditugunak.

2.1. G9 taldeko defendatzaileen bilerak

G9 taldea³ lan eta gogoeta egiteko talde bat da, oso aktiboa eta oso ondo funtzionatzen duena, bere bileretara taldekoak ez diren unibertsitateetako defendatzaileak ere erakarri ohi dituen (Coruña, Murtzia eta Deustuko unibertsitateak). Taldea birritan biltzen da urtean: G9

³ G9 Taldea estatuko unibertsitate publikoen elkarte bat da: Kantabriako U., Gaztela-Mantxako U., Extremadurako U., Balear Uharteetako U., Errioxako U., Nafarroako U., Oviedoko U., UPV/EHU eta Zaragozako U.

taldeko unibertsitate batean eta Madrilen. Madrilgo bileran, lan jardunaldiak hiri horretako Unibertsitate Politeknikoan egiten dira, eta unibertsitate horretako defendatzaileak ere parte hartu ohi du.

Taldearen 2015eko lehen bilkura Madrilen egin zen, martxoaren 5 eta 6an. Gai hauek aztertu ziren:

- 1) Osasun arazo kronikoak dituzten irakasle-ikertzaileen lanpostua egokitzea.
- 2) Irakasle-ikertzaileen osagarri autonomikoak.
- 3) Berezko Tituluei lotutako arazoak Unibertsitate Defendatzaileen bulegoetan.
- 4) Endogamia eta plazen eginkizunak.

Urteko bigarren bilera Gaztela-Mantxako Unibertsitatean egin zen, Cuencan, ekainaren 11 eta 12an. Lau gai aztertu ziren:

- 1) Unibertsitate Defendatzailearen erakundeari buruzko gogoetak.
- 2) Matrikula aldatetari lotutako arazoak.
- 3) Aurrerapen eta iraunkortasun arautegiek sortutako arazoak.
- 4) Eskariak egiteko eskubidea, erantzukizuna eta gaiak izapidetzeko bizkortasuna unibertsitateko administrazioan.

Azken txosten hori gure bulegoak landu zuen, abiapuntutzat harturik hilabete lehenago topaketa hauetan parte hartu ohi dutenei bidali genien inkesta.

2.2. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak arautegian aurreikusitako aldaketei buruzko Jardunaldia

2015ean, urteko ohiko bileraz gainera, Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen Konferentziak (CEDU) Hausnarketa Jardunaldi bat egin zuen Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak aurreikusitako aldaketa batzuk aztertzeko. Jardunaldia Madrilen egin zen, apirilaren 17an, gai hauek hartuta aztergai:

- 1) Tituluen egitura berria: "3+2" eskema.
- 2) Unibertsitateko Irakasleen Kidegoetara sartzeko Akreditazio Nazionalako Dekretuaren Erreforma.
- 3) Unibertsitateak eta Unibertsitate Ikastegiak Sortzeko, Aitortzeko eta Akreditatzeko Errege Dekretuaren Proiektua.

Lan jardunaldi horren testuak esteka honen bidez eskura daitezke:

<http://www.cedu.es/index.php/relaciones-internacionales/documentos-cedu>

2.3. Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen Konferentziaren (CEDU) XVIII. Bilkura

CEDUk bultzatutako eta Europako Unibertsitateak antolatutako *Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen Konferentziaren XVIII*. Bilkura Madrilen egin zen, 2015eko azaroaren 4tik 6ra.

Bileran, mahai inguru bat antolatu zen, "Etika eta eskubideak XXI. mendeko unibertsitatean" izenburupean, eta hiru lan mahai. Lan mahaiak gai hauek landu zituzten:

- 1) Gradu Amaierako Lanei lotutako arazoak.
- 2) Diziplina zuzenbidea eta segurtasun juridikoa.

3) Eskariak egiteko eskubidea, erantzukizuna eta gaiak izapidetzeko bizkortasuna unibertsitateko administrazioan.

F. Manuel Montalbán Malagako Unibertsitateko Defendatzailerekin batera, azken gai horri buruzko txostena egiteaz arduratu nintzen (ikus 1.12 ataleko esteka). Txostenean, gai horretan aurretik egin nuen lana zabaldu genuen (Cuencako G9 taldearen bileran aurkeztua), abiapuntutzat harturik aurreko inkestaren aplikazioa –aldaketa batzuekin– CEDUko unibertsitate kide guztietan.

Bestetik, aipatzekoa da CEDUk Manifestu bat prestatu zuela, 2015eko azaroaren 6ko datarekin, diziplina zuzenbideari buruzko eztabaidatik abiatuta, eta bere kezka agertzen zuela idatzi horretan, “ez daukagulako geure gizartearen eta Unibertsitatearen izaerarekin bat datorren arautegirik, non egokiro arautu eta bideratzen den gure unibertsitateetako Administrazio eta Zerbitzuetako langileen, irakasle-ikertzaileen eta ikasleen arteko bizikidetzatza”. Idatzi horretan, unibertsitatean segurtasun juridikoa eta bizikidetzatza sendotzeko asmoz, dei egiten zitzaion legebiltzarreko taldeei, “bakoitzak bere unibertsitate-eredua prestatu eta aurkez dezan, eta konpromisoa har dezan hurrengo legealdian Unibertsitateko Ikasleen Estatutua garatuko duen Erregelamendua prestatzeko –horrela 2010ean harturiko konpromisoa betetzeko, berandu bada ere–, eta halaber, enplegatu publikoen arau-hauste larrien eta arinen eta dagozkien zehapenen katalogoa arautuko duen legea onartzeko”. Zalantzarik gabe, interes handiko dokumentu bat da, unibertsitateko kide askoren nahi bati erantzuten diona: hau da, tresna eraginkor bat edukitzea modu egokian arautzeko jokabide batzuen inpunitateari aurre egiteko behar diren zehapenak. Manifestua irakurtzeko, ikus **II. ERANSKINA**.

Bilkura honen laburpena amaitzeko, aipatzekoa da **CEDUren Zuzendaritza Batzordeko kide** hautatu nindutela bozketa bitartez.

2.4. 12th European Network of Ombudsmen in Higher Education (ENOHE) Annual Conference

2015eko maiatzaren 28tik 30era, Europako goi hezkuntzako defendatzaileek Innsbrucken egin zuten urteko bilkuran izan nintzen (*12th European Network of Ombudsmen in Higher Education –ENOHE– Annual Conference*). Horri esker, Europar Batasuneko eta batasunetik kanpoko herrialdeetako defendatzaileen lana ezagutzeko aukera izan nuen: Austria, Holanda, Erresuma Batua, Australia, AEB eta abar.

2.5. CEDUren foroak

Lau urte hauetan pilatu dugun esperientziak eta azken urte honetan bulegora iritsi diren aztergaiak horren korapilatsuak ez izateak aukera egokia eman digute parte hartze handiagoko izateko CEDUko defendatzaileen artean posta elektronikoko bidez sortu ohi diren eztabaidetan.

Hala, foro ugaritan parte hartu dugu, informazioa eta iritziak trukatzuz gai askori buruz. Zehazki, honako hauei buruz:

- jazarpen protokoloak,
- irakasgaien bateraezintasuna,

- istripu aseguru unibertsitateko langileentzat,
- prezio publikoak itzultzea matrikula baliogabetzeagatik,
- tituluen tasak ordaintzetik salbuestea karrera amaierako ezohiko sariagatik,
- Irakaskuntzak Antolatze Errege Dekretuaren zirriborroa,
- Irakaskuntza Giden plagioa,
- ikerketa kontuan hartzea Jardun Akademikoaren Planean,
- lankidetzaren unibertsitate defendatzaileen eta herri defendatzaileen artean,
- plazak erreserbatzea Graduondokoetan desgaitasunak dituzten pertsonentzat, eta
- Goi Hezkuntzako Tituluaren Europar Gehigarria emateko zailtasunak.

Gainera, G9, CEDU eta ENOHEko bileretan aztertutako gaiei buruzko informazio eskatuz iritsi zaizkigun inkesta guztiei erantzun diegu.

2.6. *Universidad, Ética y Derechos “Rued@”* aldizkaria

2015ean, gure ekarpena egin diogu ere CEDUk argitaratzen duen *Revista Universidad, Ética y Derechos “Rued@”* aldizkariari. Zehazki, artikulu bat idatzi dut, Enrique Martínez Coruñako Unibertsitateko *Valedor*-arekin eta Manuel Montanero Extremadurako Unibertsitateko irakaslearekin batera:

Martínez, E., Etxebarria, I. eta Montanero, M. (2015). “Asignaturas con resultados anómalos en la Universidad: causas y alternativas de gestión”, *Universidad, Ética y Derechos “Rued@”*, 0 zk., 21.-41. or.

Bestetik, F. Manuel Montalbán Malagako Unibertsitateko defendatzailearekin batera, CEDUren XVIII. *Bilkura*n aurkeztu nuen txostena osatu dut, gaiari eskainitako eztabaidaren ondorioekin eta zehaztapen juridiko batzuekin, eta aipatutako aldizkariaren hurrengo alean argitaratuko da.

Gainera, azaroan, **aldizkariaren Zuzendaritza Batzordeko kide** izendatu ninduten.

2.7. Bilera Arartekoarekin

2015eko abenduaren 14an, bilera egin nuen Manuel Lezertua Arartekoarekin, Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak 2015eko maiatzaren 28an izendatu zuena. Rosa Miren Pagola Deustuko Unibertsitateko Aldezlea ere izan zen bileran, zeinarekin oso harreman estua baitut.

Bileraren helburua izan zen Ararteko berria ezagutu eta gure prestasuna adieraztea balizko kasuren batean elkarlanean aritzeko. Gainera, nire aldetik, interes berezia nuen jakiteko zer bilakaera izan duten azken urteetan UPV/EHUri lotuta Arartekoari iritsi zaizkion kasuek; bereziki, gure bulegoa martxan jarri zenetik (2011ko abenduan) heldu zaizkion kasuek. Hori horrela, Arartekoaren txostenetatik hartutako datuen arabera, 2007-2011 epean, UPV/EHUri aurka Arartekoari iritsitako kexen batez bestekoa 19 izan zen; 2012., 2013. eta 2014. urteetako batez bestekoa (ez dugu 2015eko daturik), 10.

Pertsona batzuek Arartekoarengana jo beste aukerarik ez dute, Aldezleak beren kasuan eskumenik ez duelako UPV/EHU bera gaituzten duen kontu bat baita; edota, eskumenak izanda ere, unibertsitate agintarien erantzun egokirik lortzen ez duelako. Hala ere, interes berezia genuen jakiteko zer motatako kexak jasotzen ari den azken urteotan, baita ere ikusteko

zer neurritaraino lot daitekeen kexa kopuruaren beherakada gure bulegoaren sorrerarekin. Bileran gai honetan gehiegi sakontzeko aukerarik izan ez bagenuen ere, argi gelditu zen ezen Arartekoarengana iristen diren kasu gehienetan Aldezleak ez daukala eskumenik, edota horrelakoetan ez duela erantzun positiborik lortu, nahiz eta batzuetan UPV/EHUtik kanpoko pertsonen kasuak ere badauden, zuzenean Arartekoarengana jotzen dutenak, Aldezlearen erakundearen berri ez izateagatik. Edonola ere, datuek erakusten digute gure bulegoa martxan jarri izanak beherakada bat eragin duela UPV/EHUREkin lotuta Arartekoari iristen zaizkion kasuetan.

Bestetik, bilera, nire kezka adierazi nahi izan nion Arartekoari gure unibertsitatean ditugun arazo jakin batzuei buruz, Aldezlearen eskumenetik kanpo egon arren bereziki aipagarriak direnak. Alde horretatik, hiru gai aipatu nizkion zehazki:

- 1) Eusko Jaurlaritzaren Lankidetzaren Beken deialdirik eza azken bi urteetan.
- 2) Irakasle-ikertzaileentzako Ordainsari Osagarrien kasuko puntu hauek: azken lau urteotan deialdirik egin ez izana; deialdi berriaren atzerapena; azken horren atzeraeraginik eza; protokoloaren segurtasun juridikorik eza; Eusko Jaurlaritzaren kasazio-errekurtsua UPV/EHUri prozesua martxan jartzea eskatzen zion epaiaren aurka, Auzitegi Gorenean; 3,5 milioi euroko murrizketa Eusko Jaurlaritzak 2016an osagarriak ordaintzeko aurreikusi duen partidan...
- 3) Irakasle gazteen egoera: soldata txikiak; egonkortasuna lortzeko zailtasunak, birjarpen tasari ezarritako mugengatik; aurrekoaren ondorioz, bosturtekoak, seiurtekoak, proiektu zuzendaritzak... eskuratzeko ezintasuna... Arazo horiek denek zerikusi zuzena dute Gobernu zentralaren azken urteotako politikarekin, nahiz eta badiren ere Eusko Jaurlaritzaren mende dauden beste gai batzuk: hala nola azken urteetan osagarriak eskatzeko ezintasuna edo osagarri horien gaur egungo deialdiaren atzeraeraginik eza.

Halaber, oro har, aprobetxatu egin nuen Arartekoarekin eginiko bilera, azken urteotan Madrilgo Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak unibertsitate publikoari eman dioten tratua eragin didan kezka aipatzeko.

Bileran, Arartekoaz gainera, Faustino López de Foronda, Arartekoaren idazkari nagusia, eta Jaione Agirre, Hezkuntza Arloko arduraduna, izan ziren. Osagarriei buruz eta irakasle gazteengan horiek dituzten eragin bereziki kaltegarriak dagokienez, begien bistakoa da Arartekoak ez duela esku-hartzeko modurik, arazoaren gaur egungo judizializazioa dela-eta. Aldiz, Lankidetzaren Beken gaian, egoera aztertze konpromisoa hartu zuen. Arartekoarekin eginiko bilera, gainontzean, bi erakundeen arteko lankidetzaren estutzeko balio izan zuen.

3.- Txosten ekonomikoa

2015eko aurrekontua 15.000 eurokoa izan da, aurreko urteetako kopuru bera. 11. taulan, gastuak eta urteko ekitaldi ekonomikoa ixteko datari –abenduaren 31– dagozkion kontuen egoera ikus daitezke.

11. taula. 2015eko laburpen ekonomikoa

Hasierako aurrekontua	15.000,00 €
Gastuak	
Bulegoko materiala, fotokopiak...	2.602,26 €
CEDUko bazkide kuota, ENOHEren konferentzian izena ematea	516,75 €
Ikastaroak	5.556,20 €
Bidaiak eta dietak	4.170,90 €
Beste gastu batzuk	150,46 €
Gastuak guztira	13.000,57 €
Saldoa	1.999,43 €

4.- Azken gogoeta

Txostenean ikusi dugun moduan, aurreko urteekin alderatuta –bulegoa martxan jarri zen urtearekin alderatuta bereziki–, 2015. urtea zertxobait lasaiagoa izan da.

Horren arrazoiak askotarikoak dira, eta horietako batzuk inguruko beste unibertsitate batzuetan ere antzeman daitezke. Hala, Espainiako estatuko defendatzailetza gehienetan, jaitsiera bat izan da kexen kopuruan, Boloniako Planera eginiko trantsizioa amaitu ondoren. Dena dela, oso litekeena da jaitsiera horrek zerikusia izatea ere gure unibertsitateko zerbitzu askok Aldezleak bideratutako arazoak konpontzen saiatzeko azken urteetan egin duten ahalegin bereziarekin.

Gure ustez –apaltasunez diogu–, bulegoak eginiko lanak eragin bat izan dezake ere gatazken murrizte horretan, aurreko urteetan arazo asko eta energia gastu handia (geurea nahiz beste zerbitzu batzuenak) eragin dituzten kasu jakin batzuk itxiz joan garelako, ahalik eta hobekien, eta mugak jarri dizkiegulako zenbait jarrera auzilariri.

Edonola ere, ez gaude –ezta hurrik eman ere– bulego martxan jarri zenean genuen egoera berean, nahiz eta ezin esan daitekeen gure unibertsitatea oasi bat denik, non arazoak garrantzi gabekoak diren. Aitzitik, inguruko beste unibertsitate batzuetan bezala, gure unibertsitatea ataka estuan dago, eta desmoralizazio zantzuak suma daitezke haren kideen artean.

Alde horretatik, nahikoa da gogoratzea Gobernu zentralak azken urteetan hartu dituen neurriak: 2013an, % 10eko birjarpen tasa inposatzea, 2015ean % 50era igo dena, oraindik nahikoa ez bada ere modu egokian erantzuteko urte hauetan metatuz joan den plaza eskaerari (horrek frustrazioa eragin du irakasle eta AZP askoren artean, zapuztu egin direlako beren egonkortasun eta promozio itxaropen legitimoak); AZPko langileen eta irakasle-ikertzaileen soldatak izoztea, funtzionario nahiz lan kontratadunak; ikerketa proiektuetarako finantzaketa txikitzea; 3+2 egiturari buruzko Errege Dekretua argitaratzea oraindik ebaluatzeke zeudenean Gradu berriak; unibertsitate pribatuen sorrera errazten duen Errege Dekretu bat argitaratzea, justu unibertsitate publikoak murrizketak eta zailtasunak pairatzen ari direnean; etab. Bestetik, ezin ditugu aipatu gabe ere utzi Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakiak: Lankidetzak Bekak

kentzea unibertsitate ikasleentzat; proiektuetarako diru ekarpenak txikitzea; atzerapenak eta trabak irakasle-ikertzaileentzako osagarrien deialdian...

Horri guztiari gehitu behar diogu azken urteetan gertatu den burokraziaren hazkunde esponenziala, 2011n izendatu nindutenean eginiko nire lehen diskurtsoan jada aipatu nuena eta, antza, gure artean luzaro iraungo duena.

Unibertsitateko kide guztiok geure onena ematen jarraitu behar dugu, UPV/EHU unibertsitate publiko bikaina izan dadin, irakaskuntzan, ikerketan eta gizarte erantzukizunean. Dena dela, ahalegin horrek ezin izango du mugagabeki iraun, baldin eta ez badu botere publikoen babes eta laguntza handiagorik.

Unibertsitate defendatzaileak ez du eskumenik aipatutako arazoetan. Hala eta guztiz ere, Aldezlea naizen aldetik, kezkaz bizi ditut gure unibertsitatearen orainarentzat eta etorkizunarentzat garrantzitsuenak iruditzen zaizkidan gai horiek, eta, horregatik, txosten hau baliatu nahi dut aldarri egiteko gure unibertsitatearen alde, haren orainaren eta etorkizunaren alde, eta arren eskatzeko gure Gobernu Taldeari borrokatu dadila bere indar guztiekin egoera honetatik irten gaitezen lehenbailehen. Eginkizun horretan, ziur egon daiteke unibertsitateko kide guztiok izango gaituela ondoan buru-belarri laguntzen.

I. ERANSKINA: Aztergaien zerrenda

Gakoak

Taldea	Aztergai mota
IK: Ikasleak	KE: Kexa
Ir.-ik.: Irakasle-ikertzaileak	KO: Kontsulta
AZP: Administrazio eta Zerbitzuetako langileak	B: Bitartekaritza
Beste batzuk: UPV/EHUtik kanpoko pertsonak	

Zk.	Taldea	Aztergai mota	Gaia
399	Ir.-ik.	KE	Desadostasuna Docentiaz programan parte hartzeko baldintzekin.
400	Ir.-ik.	KO	Bere lanpostuak lanpostuen zerrendan izan duen aldaketari aurka egiteko aukera.
401	IK	KO	Irakasgai jakin batzuetan matrikulatzea eskatzen zaio, atzerriko unibertsitatetik irakasgai horien kalifikazioak iritsi ez direnean.
402	Ir.-ik.	KO	Lankideen trabak bere lan eskubideak gauzatzeko.
403	AZP	KE	Lan karga handiegia eta arduradunekin horri buruz hitz egiteko ezintasuna, aurretik pertsona horiekin izandako gorabeherengatik.
404	IK	KO	Zer egin lerraturik egon daitezkeen ebaluazio batzuekin.
405	IK	KO	Zalantzak ebaluazioari buruz.
406	Ir.-ik.	KO	Osagarrien deialdia zertan den.
407	IK	KE	Desadostasuna tutoreak eskainitako arretarekin.
408	Beste batzuk	KE	Erantzunik eza saileko zuzendariak irakaskuntza banatzean izandako jokabide bidegabeari buruzko idatziari.
409	IK	KO	Arazo ugari irakaskuntzaren antolakuntzan.
410	IK	KE	Matrikulatzeko ezintasuna, taldeen kupoa ez zabaltzeagatik.
411	IK	KO	Erantzunik eza irakaskuntza arazoei buruzko idatziari.

412	IK	KE	Arazoak ebaluazio epaimahaiko irakasle kide batekin.
413	Ir.-ik.	KO	Atzerritarren pribatutasuna babestea noten zerrendetan.
414	Beste batzuk	B	Osasun arazoak kontuan ez hartzea UPV/EHUrako lekualdatzean.
415	IK	KO	Zer egin irakasgai batean sei deialdiak agortu direnean.
416	Ir.-ik.	KE	Garai batean jazarle izan zuen pertsona Graduko koordinatzaile izendatzea.
417	Ir.-ik.	KE	Sailaren esku-hartzea ikasturte bateko euskarazko irakaskuntzan.
418	IK	KE	Tutoreari eskatzea GRALa sinatzeko entrega epea amaitu baino ordu batzuk lehenago eta hark ez erantzutea.
419	IK	KE	Irakasle aldaketa urtero irakasgai batean.
420	Beste batzuk	KE	Oso esperientzia txarra fakultate batean.
421	IK	KE	Zailtasunak irakasgai bat gainditzeko.
422	Ir.-ik.	KE	Desadostasuna Aldezleak plazak ebaluatzeko batzordeari azalpenak eskatzeko emandako aholkuarekin.
423	Beste batzuk	KO	Bere kaleratze denboran –bidegabeko kaleratzea– beste irakaslerik kontratatu den jakin nahi du.
424	Ir.-ik.	KO	Irakasgaien lankide duen irakasleak ikasleekin ondo gelditzeko bere kasa hatutako erabakiak.
425	IK	KE	GRALaren defentsa data azken orduan eta arrazoi sendorik gabe aldatzea.
426	IK	KE	Arautegia ez betetzea UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluaren hauteskundeetan.
427	Beste batzuk	KO	Nola lortu aspaldi amaitutako ikasketa batzuen titulua.
428	IK	KE	Erantzunik eza doktorego beka baten ezezpenari jarritako errekursoari.
429	Ir.-ik.	KO	Nola jokatu sekta batek abduzitura dirudien ikasle batekin.

430	Ir.-ik.	KO	Haurdunaldiarentzat arriskutsua izateagatik plaza deialdi baten proba ez egitearen ondorioak.
431	Ir.-ik.	KO	Zer neurritaraino onartu behar den bajagatik kontratua aldi baterako eteteak eragina izatea kontratu amaieran, agregatu edo titular plaza bat eskuratzeari begira.
432	Ir.-ik.	KO	Tesi zuzendariaren jazarpen-portaerak.
433	Ir.-ik.	KO	Irakasgai bat erretiratzea bilera batean egon ezin izana (aurretik abisatua) aprobetxatuta, idatziz adierazi badira ere lehentasunak eta horretarako eskubidea izanda.
434	IK	KE	Arazoak irakasgai baten euskarazko eskolekin.
435	IK	KO	Nazioarteko tesien arautegi berria onartuta, tesia aurreikusitako epean gordailutzeko ezintasuna.
436	IK	KO	Nazioarteko tesien arautegi berria onartuta, tesia aurreikusitako epean gordailutzeko ezintasuna.
437	IK	KO	Zentzurik baduen epez kanpo errekurso bat jartzea Errektoregoan, irakasgai baten ebaluazio berri bat eskatzeko.
438	Ir.-ik.	KE	Erantzunik eza doktorego beka baten ezezpenari jarritako errekursoari.
439	IK	KO	Nola errekurritu matrikularako beka eskaerari emandako ezezkoa.
440	IK	KO	Non dagoen araututa kalifikazioak argitaratzeko epea Unibertsitate Master ikasketetan.
441	Ir.-ik.	KE	Irakaskuntzako lan poltsen deialdia argitaratzea aurreko erreklamazio baten ondorioz jada zuzenduak izan diren baremo irizpideak eguneratu gabe.
442	Beste batzuk	KE	Erantzunik eza egungo ikasleei eta ikasle potentzialei egiten ari diren edo egingo duten Graduako lan irtenbideei buruzko informazioa emateko eginiko eskaerari.
443	IK	B	Arazo ugari irakaskuntzaren antolakuntzan.
444	Ir.-ik.	KO	Ordainsari osagarriak eskatzeko ezintasuna.
445	IK	KE	Practicuma ez gainditzea enpresaz aldatzeagatik, kontratua lortzean beste enpresa batean.

446	AZP	KO	Zer egin ikasleek AZPkoenganako tratu errespetugabea dutenean.
447	Ir.-ik.	KE	10 euro baino gehiago ordaintzea ordezkapen-poltsetara aurkezteko.
448	Ir.-ik.	KO	Amaitu daiteke ordezkapen-kontratua mugaeguna iritsi baino lehen beste irakasle bat sartzeagatik, kontuan izanik gainera kaltegarri dela ikasleentzat?
449	AZP	KO	Senide baten gaixotasun larriagatik lortutako baimen egunak zatikatzeko aukera.
450	Beste batzuk	B	Ikasle presoentzako arreta.
451	IK	KE	Baldintzak ezartzea ikasturtea gainditzeko behar bezalako informaziorik eman gabe.
452	IK	KO	Zer egin Ikasketetarako Beka Orokorraren eskaerarentzat jasotako ezezkoaren aurrean.
453	Ir.-ik.	KO	Nola jokatu ikasle batek klasean iruzkin arrazista bat egin duenean.
454	IK	KO	Nola lortu gradua amaitzeko falta diren irakasgaiei buruzko informazioa.
455	AZP	KE	Lan-baldintzak eskasak.
456	IK	KO	Irakasle bat azterketa baten ebaluaziotik kentzeak esan nahi duenaren interpretazioa.
457	IK	KO	Zer egin irakasle bati klasean gai bati buruzko azalpenak emateko eskatu eta halakorik egiten ez badu.
458	IK	KO	Zer egin Graduako Errektoreordetzak ezezkoa ematen badio gradu batean bi aipamen egiteko aukerari.
459	Ir.-ik.	KO	Osagarrien atzeraeraginik ezari erantzuteko aukerak.
460	Beste batzuk	KE	Gaizki eginiko Selektibitateko matrikula bat azterketan bertan aldatu ezin izatea.
461	Ir.-ik.	KO	Irakaslanaren banaketa erabakitzeko irizpideak.
462	AZP	KE	Erantzunik eza epai baten kopia eskaerari.

463	IK	KO	Zer egin ikasturte erdian azterketa eguna aldatzea erabaki eta horri buruzko informazio ofizialik ez dagoenean.
464	Ir.-ik.	KO	Zer egin doktorego tesi bat zuzendu ezin denean Doktorego Programan ez egoteagatik.
465	Beste batzuk	KO	Nola inpugnatu lerratutzat hartzen diren plaza baten balorazio irizpideak.
466	AZP	KO	Lanpostu aldaketa eskatzeko egin beharreko urratsak.
467	IK	KO	Nola jakin master baterako onartuen zerrendan zer posiziotan dagoen, erreklamazio bat jarri ondoren behin-behineko zerrendan ez agertzeagatik.
468	Ir.-ik.	KO	Nola formalizatu ikasleentzako konpentsazio ekonomikoa esku-hartze programan parte hartzeagatik.
469	IK	KO	Atal praktikoa berriro ebaluatua izateko eskubidea, jada gainditu den irakasgaiaren nota igotzeko.
470	AZP	KE	Erantzunik eza fundazio bati buruzko informazio eskaerari.
471	AZP	KO	Bibliotekako Laguntzaile plazaren amortizazioa.
472	AZP	KO	Kalte-ordaina jasotzeko eskubidea kontratua amaitzeagatik.
473	IK	KE	Kexak baliozkotzeei, azterketei, irakasleek emandako tratu desegokiei... buruz.
474	IK	KO	Nola aurkeztu erreklamazioa Frantzia Erasmus programan eginiko irakasgaia ez baliozkotzeagatik.
475	IK	KO	Zer egin tituluan falta den irakasgai bakarra gainditzeko.
476	IK	KO	Arautegiaren aurkako erabakia eta azterketa bati buruzko informazio nahasia.
477	IK	KO	Gradua amaitzeko arazoak praktikak ez egiteagatik (unibertsitatearen komunikazio txarragatik).
478	IK	KO	Nola konpentsatu irakasgai bat gradura igaro behar ez izateko.
479	IK	KO	Ezezkoa Beka Orokorrari nahikoa sarrerarik ez izateagatik.
480	IK	KO	Nola errekurritu irakasgai baten nota.

481	AZP	KE	Erantzunik eza kanpoko Zerbitzu Juridikoak kontratatzeari buruzko informazio eskaerari.
482	IK	KO	Aukerakoa da 5. eta 6. deialdia ematea?
483	IK	KE	Diskriminazioa graduz aldatzean irakasgaiak aukeratzean.
484	IK	KO	Aparteko Deialdian lan bat exijitzea irakasgaia gainditzeko.
485	IK	KO	Irakasgai bat konpentsatzeko aukerak.
486	Beste batzuk	KO	Arazoak espediente baten lekualdaketaren izapidetzean.
487	IK	KO	Arazoak konpentsazioan.
488	IK	KO	Arazoak GRALa egitean eta Epaimahaiaren aurrean defendatzean.
489	Beste batzuk	KO	Arazoak onarpen notaren kalkuluan eta matrikula eskaeran.
490	Ir.-ik.	KE	Tresneria elektronikoaren erosketa eskaeran jasotako tratua.
491	Ir.-ik.	KO	Zailtasunak tesia amaitzeko, preso egoteagatik.
492	IK	KO	Lekualdatze onarpen bati buruzko informazioan akats bat egon dela jakinaraztea, matrikulatzeko unean.
493	Ir.-ik.	KO	Nola jokatu talde jazarpena eragin dezaketen portaeren aurrean.
494	Ir.-ik.	KE	Kexa ikastegiko garbiketa zerbitzuari buruz.
495	Ir.-ik.	KO	ANECA eta UNIBASQ agentzien ebaluazioen xehetasunak lortzeko modua.
496	Beste batzuk	KE	25 urtetik gorakoen proben ebaluazioa.
497	IK	KO	Nola jokatu matrikula baliogabetzen denean, matrikula ez ordaintzeagatik bekari ezezkoa ematen zaionean.
498	IK	KE	Tesiaren zuzendariak esan dio jada ezin duela irakurri.
499	Ir.-ik.	KE	Laneko Osasun teknikariak aholkatutako neurriak ez hartzea.
500	IK	KO	Zer egin tesiaren zuzendariak jaramonik egiten ez duenean.

501	IK	KE	Arazoak matrikulatzeko, Latinoamerikako unibertsitateak kalifikazioak ez bidaltzeagatik.
502	Ir.-ik.	KO	Lankidearen mehatxuak ordutegi aldaketa ez onartzeagatik.
503	AZP	B	Nagusiaren errespetu gutxiko tratua eta haren lanak egin behar izatea.
504	IK	KE	Erantzunik eza irakasgaien gainezarpen arazoari ikasturtea hasi ondoren.
505	IK	KE	BAMEn matrikulatzeko ezintasuna aparteko deialdiko nota aktan jasota ez egoteagatik.
506	Beste batzuk	KE	Administrazio egoitza EAEn duten pertsonak MECDren lankidetzaren beken deialditik kanpo gelditzea.
507	Beste batzuk	KO	Musika ikasle birtuosen diskriminazioa eliteko kirolariei dagokienez.
508	IK	KO	Zer egin atzera botatzen denean ebaluazio berezi eskaera.
509	IK	KE	Desadostasuna unibertsitate txartel ematea matrikulan urtero kobratzearekin.
510	IK	KE	Ez aplikatzea masterraren matrikulan graduaren azken ikasturtean lortutako ohorezko matrikulengatiko kenkaria.
511	AZP	KE	Ez agertzea kide anitzeko organo baten aktan bere boto partikularren testu osoa, idatziz eman badu ere.
512	IK	KE	Doktorego programako ikerketa plan baten ebaluazio negatiboa epe barnean ez sartzeagatik GAUR aplikazioan.
513	Ir.-ik.	KO	Giro txarra sailean, irakasle batekin dituzten gorabeherengatik.
514	AZP	KE	NL lanaldiaren ezaugarrien zehaztapen falta Gerentziaren Zirkularrean.
515	Ir.-ik.	KO	Tratu bidegabe eta errespetugabea irakasgai baten esleipenean.
516	IK	KO	Praktiketan eta GRALean matrikulatzeko ezintasuna preso egoteagatik.
517	AZP	B	Zerbitzuko zuzendariaren tratu txarra.

518	Ir.-ik.	KO	Ikasle baten errespetu falta, pozik gelditu ez delako posta elektronikoz eginiko kontsulta batzuetan jasotako erantzunekin.
519	IK	KO	Futbol ligan multzo mistoan ez sartzea.
520	Ir.-ik.	KE	Berriri irekitzea itxiztat jotzen zen auditoria.
521	IK	KO	Kanpoko praktiketako hitzarmena ezarritako eguna baino lehen amaitzea, unibertsitateko ikasketak amaitzeagatik.
522	IK	KE	Datu pertsonalak baimenik gabe argitaratzea ikasturte akademikoaren txostenean.
523	IK	KO	BAMEn matrikulatzeko ezintasuna aparteko deialdiko nota aktan jasota ez egoteagatik.
524	Ir.-ik.	KE	Promozio eskubidea urratzea, eskatu zuen plazaren dotaziorik ezagatik.
525	Ir.-ik.	KO	Bi posta kontutara atxikitzeke ezintasuna.
526	IK	KO	Modu desegokian komunikatzea laugarren hizkuntza bat ikasteko ezintasuna.
527	Ir.-ik.	KE	Atsekabea Pertsonaleko Ordezkaritza Organoaren faltsukeria eta zehaztasunik gabeko informazioengatik.
528	IK	KO	Doktorego Irakaskuntzen Kudeaketa Arautegian eginiko aldaketen komunikazio desegokia.
529	IK	KO	Tutoretzak egiteko ezintasuna lan orduekin bat etortzeagatik.
530	IK	KO	Zer egin azterketaren zati bat (beharrezkoa gainditzeko) egiteko aukera galtzen denean, berandu iristeagatik.
531	AZP	KO	Badago arrazoirik plaza bat lan poltsa bidez betetzeko eta ez zerbitzu eginkizun bitartez?
532	Ir.-ik.	KO	Sailaren kontrako txosten baten aurrean erabili beharreko prozedura.
533	Ir.-ik.	KO	Zuzendaritzaren jokabide bidegabea ikasleekin izandako gatazkan.

534	AZP	KE	Erantzunik eza ingeles jakite mailaren egungo baremoen justifikazioari buruzko galderari.
535	IK	KO	Beldurra kanpoko gatazka batek bere GRALaren balorazioan izan dezakeen eraginagatik.
536	Ir.-ik.	KO	Nola jokatu zuzendari gisa doktoregai batek eginiko plagio kasuan.
537	Ir.-ik.	KE	Desadostasuna izendapen batekin.

II. ERANSKINA: Unibertsitate diziplinari buruzko CEDUren Manifestua



Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen Konferentziak (CEDU), azaroaren 4tik 6ra Madrilgo Europako Unibertsitatean XVIII. Batzarra egiteko bilduta, bere kezka adierazi nahi du gure unibertsitateek ondoren aipatzen direnak identifikatzeko pairatzen duten segurtasun juridikorik ezagatik: bizikidetza arautzen duen oinarrizko araubidea eta arau hausteak izan daitezkeen jokabideen katalogoa; gatazka pertsonalei eta instituzionalei aurre egiteko prozedura; eta gatazka horiei amaiera emateko baliabideak.

Egoera hau bi gertakariren ondorio zuzena da. Alde batetik, bost urte igaro direnean, oraindik ez da garatu abenduaren 30eko 1791/2010 Errege Dekretuaren Bigarren Xedapen Gehigarria (Unibertsitateko Ikasleen Estatutua onartzen duen dekretua); ondorioz, gure erakundeak ez du diziplina ahala arautuko duen legerik, ikasleen arau hausteak, zigorrak eta zehapen araubidearen neurri osagarriak proportzionaltasun printzipioaren arabera ezarriko lituzkeena. Horrenbestez, zehapen prozedura administratiboa unibertsitatera egokituta ez egotea eragozpena da gure erakundearentzat. Bi faktoreon eraginez, gaur gaurkoz, nekez berma daitezke ikaslearen defentsa eskubideak eta prozeduraren garapenaren eraginkortasuna, batez ere kontuan hartzen badugu Estatutu horren garapen faltan 1954ko irailaren 8ko Dekretura jotzen jarraitu behar dugula, zeinaren bidez onartzen baita Goi Mailako Irakaskuntzako eta Irakaskuntza Teknikoko Zentro Ofizialen diziplina akademikoko erregelamendua. Hala, distortsio handia sortzen du dekretuaren aurreikuspen autoritarioak –kasu askotan– etengabe eguneratzen egon beharrak eta haien “konstituzionalizazioak”.

Bestetik, apirilaren 12ko 7/2007 Legeak (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzkoa), duela gutxi urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez aldatu dena (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina), garapen lege bat eskatzen jarraitzen du, arau hauste larrien eta arinen katalogoa bateratuko duena. Ondorioz, gaur gaurkoz, diziplina hauste oso larrien zerrenda bakarra dugu unibertsitateko langileentzat (funtzionarioak eta lan kontratudunak), eta hitzarmen kolektiboetara jo behar izaten dugu (lan kontratudunentzat –Ir./Ik. edo AZP–), edota urtarrilaren 10eko 33/1986 Errege Dekretu zaharrera (Estatuko Administrazioaren Funtzionarioen diziplina araubidearen Erregelamendua onartzen duena), funtzionario publikoen (Ir./Ik. edo AZP) diziplina erantzukizuna likidatzeko.

Hori dela-eta, Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen Konferentziak

BERE KEZKA ADIERAZI nahi du gure gizartearekin eta unibertsitatearekin bat etorriko den arautegi bat ez edukitzeagatik, gure unibertsitateetako Administrazio eta Zerbitzuetako langileen, Irakasle-ikertzaileen eta Ikasleen arteko bizikidetzaren arautuko lukeena.

ETA LEGEBILTZARREKO TALDEEI HERTSATUKI ESKATZEN die beren gain har dezatela hurrengo legegaldian Unibertsitateko Ikasleen Estatutua garatzeko Erregelamendua egiteko konpromisoa –atzerapenez betez horrela 2010ean hartutako konpromisoa–, eta onar dezatela enplegatu publikoen arau hauste larrien eta arinen eta haien zehapenen katalogoa arautuko duen legea.

Hori eginez gero, segurtasun juridikoa emango genioke unibertsitateari, eta bizikidetzaren erraztuko genuke.

Madril, 2015eko azaroaren 6a



Presidentea

José Manuel Palazón Espinosa